

BERRIGARA

40. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1991, azaroak 8



**Abiadura
Haundiko
Trenaren zai**




**Osintxun
errebuelta
kenduko da**



**Sexologia
zerbitzuko
arduradunarekin**



**Lokatzak
denboraldia
agurtu**



...**kutxa**...

gipuzkoa
donostia kutxa

Sukursale berria ireki dugu Barrenkale 2an

ZAPATODOS

San Pedro

Etxeko zapatilak 950 pzta (bi pare)

BERGARA

MABER GIMNASIA - ETXEA

Kulturismoa

Mantenimendu gimnasia eta zuzenketazkoa

Edozein kirol egiteko pisu-sistema egokiak

Sasoian egoteko behar dituzun makina eta pisu mota guztiak


URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!!

Zuzendaritza: **MARTIN BERROYA EGAÑA**
(Euskadiko Kulturismo Txapelduna)

Koldo Elizalde 16, Behea

Tfnoa: 76 56 17

BERGARA



KATAIDE Jatetxea

Txingarrretan erretako haragia eta arraina.

- Bataioak.
- Ezkontzak.
- Jaunartzeak

Kataide poligonoa

Tfnoa: 79 60 10 / 77 10 80

ARRASATE

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

Laguntzailea: Bergarako
Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkorobereibar

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, Iñaki
Arietaleaniz eta Eduarne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose
Angel Mikeo, Estepan Plazaola
eta Juan Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.
Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa
Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi,
Mikel Elkorobereibar, Josune
Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber
Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa
Bikufia

Argazki laborategia:

A. Gallastegi, B. Cantero, M.
Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren,
J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares,
Txomin Retolaza, Kifu eta Pol-
Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofiati)

Banaketa: Txantxangorri
Taldea

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta eritzien erantzunkiz-
unirik.



IV. Gorlako Motor Igoera jokatu da igande goizean Gorlako aldapetan. Goizeko 10 t'erdietan entrenamenduei hasiera emango zaie; ondoren, 11 t'erdietan, lehendabiziko txanda korrituko da eta, ordubete beranduago, aurtengo edizioaren irabazlea erabakiko duen bigarren txanda izango da. Bestek beste, denboraldiko azken proba hau korritu aurretik Euskadiko txapeldun dugun Anjel Bideluze, Alex Elizburu 250 cm. kubikotako txapelduna eta Igor Agirrezabal bergararrek hartuko dute parte. Igandean goizeko 10.30tik aurrera.

9 LARUNBATA

- **Saskibaloia**
-Bergara-Bosteko (senior gizonetzkoak) 19.00etan.
- Bergara-Mundaiz (kadete gizonetzkoak) 16.30-
etan.

- **Eskubaloia:**
- Bergara-Arrate (Kadete mutilak) 15.30etan.
- Bergara-Zarautz (gazte neskak) 16.30etan.
-Bergara-Bortziriak (mutil nagusiak) 17.45-
etan.

- **Pelota partiduak:**
-Frontoian 16.30etan:
Arteaga-Urra/Etxaniz-
Errasti, Bergara-Zezea-

ga/ Alustiza-Errandonea,
eta Irazola-Buenetxea/
Gabilondo-Unzain.

10 IGANDEA

- **Saskibaloia:**
- Bergara - Jarrilleros (senior emakumezkoak), 12.00etan.
- Bergara - Uztapide (junior gizonetzkoak), 10.00-
etan.
- **Azaro - Abendu Musi-
kala:**
- Pablo Sorozabal Haize
Boskotea Seminarioko
Elizan. 20.00etan.

FARMAZIAK



- 9 Puy
- 10 Puy
- 11 Guallar
- 12 Estella
- 13 Mozos
- 14 Camacho
- 15 Puy

ZINEA



*A proposito de
Henry*

- **OSTIRALA:** 22,30.
- **IGANDEA:** 22.30.
- **ASTELEHENA:** 19,30.

*Los
Inmortales II*

- **LARUNBATA:** 17, 19.30
eta 22.15etan.

La Masa

- **IGANDEA:** 11,30

OGIA



Ogizun

KIZKUR



**Neapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

ETXAGI Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ANDIZI

ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA

Errotuloak, igeltseritza
eta pintura lanak.

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan

C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41

Faxa: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C Tfnoa: 76 01 65

Zuzendari Jauna:

Artu dot azkeneko Berrigara. Baita ere aurretiko astekoa. An ikusi eta irakurri neban Kubako erreportaje edo berriketa. Eta nai dot zori-onak ematea reportaje ori egin dabeniari. Oso ondo asmatuta zegoen. Ez da erreza iru bergaratar billatzia Kuban egondakoak, eta gañera bat Fidel Castro eldu baño lenago, beste bat Castro eldu zanian eta irugarrena azkenengo denporetan. Eurok esan doskue an ikusi dabena, politika alde batera utzita. Orregatik eskerrak nere orde z bai Sagastumeri, bai Tomasi eta Mireni. Kuban egon ez garenak jakin dogu orrela len baño geiago.

Mundu guztiak emon leike beran eritzia reportaje orri buruz. Baña nik uste dot gutxienez eskatu leikena da azpian norberaren izena ipintzia. Eta neria da:

Jose Idarreta Sañudo

Alkate Jaunari

Bergarako alkateak auzo alkateak izendatu ditu behatzez eta zela ez dudan ezer ulertzen galdera batzuk egingo dizkiot alkate jaunari, nahi badu erantzun.

1.- Zergatik egin duzu hori?



Etzan hobea auzuak berak hautatzea? Auzuak ez dauka horretarako eskubiderik?

2.- Zergatik lehengo batzuk laga eta beste batzuk kendu dituzu? Izendatutakoak zure alderdikoak dira?

3.- Oraingoak zer dira, auzo alkateak, alkartearen delegauak, ala zer?

Eta auzo alkateei ere galdetuko nieke ia gustora dauden izendatzeko moduarekin eta ez badaude, ia non azaldu duten euren disgustua.

Jesus Mari Elorza (Ubera)

Eskerrikasko guztioi

Joan zen urriaren 19an Idarra baserriaren alde Bergarako frontoian egin zen jaialdian parte hartu zenuten guztioi (dantzari, bertsolari, txiste kontalari, soinu-jole eta dultzainero taldeari), eta nola edo hala laguntza eman zenutenei (frontoi-koei, Garden loradendakoei, Udaletxeari, Lankide Aurrezkiari eta jaialdia ikustera etorri zinteno, ...), eskerrak eman nahi dizkizuegu lerro hauen bitartez.

Idarra Baserriaren
Aldeko Batzordea

Tiira ba!



Josu Okina

Pol-Pol

Pol-Pol Mendizale Taldeak datorren ostegunean, hilak 14, arratsaldeko 8etan, **Ez Ohizko Batzar Orokorra** egingo du Pol-Poleko Areto sozialesan. Aztergaiak, Elkarteko egoera bertan burututako obren ondoren, kuoten berrazterketaena eta azkenik, eskari eta galderak liriateke eta bazkide guztiei dei egiten die Elkartean puntualitate osoz Biltzarre honetara etor daitezten.

Urkulura martxa Zenbait talde ekolojistik **martxa ekolojista** antolatu dute larunbaterako, hilak 9, **Urkulun** banku entitate batek eraikitzen ari duen etxearen aurka protesta egiteko. **Martxa** goizeko 10 t'erdietan aterako da Frontoitik.



Kurba arriskutsua

Gipuzkoako Diputazioak Osintxuko barieteko iparraldeko irteeran (Soraluze aldera) dagoen kurba arriskutsuaren berriztatze lanaren proiektua onartu berri du. Istripu ugari izan da aipaturiko kurba horretan eta Osintxuko bizilagunek aspaldian egin zuten be-
rau hobetzeko eskakizuna. Beraz, orain arte zegoen bisibilitate eskasa gehitzea izango da lan

hauen helburu nagusia. Orain arte autobusak eta kamioiak esate baterako, maniobra arriskutsuak egin beharrean izaten ziren Osintxutik irtezerakoan, oso bisibilitate gutxi baitzegoen alde bietara. Orain, akats hori zuzentzeko eta istripuak gutxiagotzeko egingo diren lan hauek, printzipioz, 89 milioi pezeta aurrekontua izango dute.

Aparkalekuak **Elgetako Udalak** **Torrealedea** etxeetako 1, 2, 3 eta 4 zenbakiko terrenu batzuen zesiñua onartzea erabaki zuen, horren truke Udalak 18 **aparkamentu plaza** egin beharko dituelarik. Aparkamentu hauek behin behinekoak izango dira Torrealedea etxeetako urbanizazio proiektuaren arabera eraiki bitartean.

Antzuola **Antzuolako Udal Batzarrak** ez zuen onartu asteartean alkateak Udaletxean lan egin eta liberatzeko **EAJk** egindako proposamena. **EAJ** bakarrik azaldu zen honen alde, beste alderdiek ez baitzuten bidezko eta beharrezko ikusten alkateak egun osoz Udaletxean lan egitea.

IMI berria

Astelehenean, hilak 11, aspaldi honetan itxita izan den **IMI** zerbitzuak bere atak zabalduko ditu berriro. **IMI**ko bulegoak lokal berria estreinatuko du gainera, astelehenetik aurrera Ibargarai kaleko 43 zenbakian dagoen lokalean izango bait duzue. Ordenadorezaleek arratsaldeko 3retatik gaueko 9etara izango dute bertan praktikatu eta ikasteko aukera. Larunbatetan ere goizeko 9etatik ordubatera zabalik egongo da. Hasteko, aurrez eskatu eta onartuak izan ziren guztiek **Open Acceseko** ikastaroa egiteko aukera izango dute.



ORTZI
Erretegia
ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOYO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

□ **Ikerketa beka**
Udal Euskara Zerbitzuak euskal kulturaren bultzatzaile izan direnen historia eta ondarea biltzeko konbokatutako bekara aurkezteko epea azaroaren 31n bukatzen da. Lanaren betekizuna Bergarako euskal idazle eta euskalarien bizitza eta lanak jasotzea edota herriko antzetzalde, bertsolari, abestalde..., eta abarren historia azaldu eta diren dokumentuak biltzea litzateke. Beka norbanakoek zein taldeek jaso ahal izango dute.

□ **Txibisto**
 Datorren larunbatean, hilak 16, *The Damned* talde ingelesak kontzertua eskeiniko du *Txibisto dantzalekuan*. Handik astebetetera, hilaren 23an, *The Blues Brothers* talde historikoa izango da Bergaran.



Gabonen atarian

Bergarako Udalak joan den urteko Gabonetan kaleak argiztatzeko lanak egin zituen enpresa bera kontratatu du aurtengo ere lan hori burutzeko. Iruñeako *Ilanor enpresa* joan den astetik dugu lan hortan murgildurik eta oraingo honetan, nobedade gisa, eta iaz zenbait komertzianterekin izandako arazoak errepika ez daitezen, hiruzpalau kale gehiago argiztatuko dira, Irizar, San Pedro eta Artekale hain zuzen ere. Guzti horrek aurrekontua ia lau

milioikoa izatea dakar.

Ilanorrek prestatu du jadanik argi instalazio guztia eta hilaren amaieran kableatuan argiak jartzeari ekingo dio Plazan, Bidekurutzeta, Artekale, Barrenkale, Ibargarai, Simon Arrieta, Arrurriaga-Burdiñate, Irala eta San Pedro kaleetan. Argi horiek abenduaren 22tik urtarrilaren 6ra bitartean izango dira funtzionatzen eta dudarik ez giro berezia jarriko dutela Gabonetako gauetan.

□ **Azaro-abendu**
Azaro-abendu Musikalaren barne igande honetan, hilak 10, *Pablo Sorozabal Haize Boskotearen* txanda izango da. Boskote honek, besteak beste, XVII. mendeko Hungriako dantzak eta *Debussy* eta *J.S. Bachen* zenbait pieza eskeiniko ditu Seminarioko Elizan arratsaldeko 8etan.

□ **Kikaundi**
 Bergarako *Kikaundi Ludotekak* denbora librean murgildurik dabilen jendearentzat ipuin kontaketa ikastaroa antolatu du azaroaren 21 eta 22rako. Izena emateko epea azaroaren 4etik 15era bitartean izango da zabalik ludotekan bertan (Aranzadi Ikastolako bigarren pisuan) edota 763270 telefono zenbakira deituaz. Matrikulak 1000 pezeta balioko du.

EDEL tapizdenda

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta 7,


Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

ayastury

Barrenkale 30
 Tfnoa: 76 11 31
 BERGARA

Jantzidenda



Udalak eta euskara

Koldo Pereira, Euskara eta Hezkuntza Batzordeko burua eta **Estepan Plazaola** Udaleko Euskara Dinamizatzaileak, Euskal Autonomi Elkarteko hainbat erakunde ofizialek antolatu duten "**Udalak eta Euskararen normalkuntza**" izeneko hitzaldi-sortaren berri eman zuten prentsaurrean asteartean. Hitzaldiok Deba Garaia eta Deba Beheko udaleko alkate eta zinegotzientzat antolatu dira eta Bergarako UNEDen izango dira datorren as-

telehenean, hilak 11, eta asteazkenean, hilak 13, arratsaldeko 5etatik 8etara. Guztira 50en bat partaide izango dira, horien artean 8-9 Bergarako Udalekoak. Bertan Udalek beren burua eta herria euskalduntzeko jarraitu beharreko politika aztertuko da. Lehen egunean **Mari Karmen Garmendia** Hizkuntza Politikorako Idazkari Nagusiak eta **Andoni Sagarnak** hitzegingo dute. Bigarrenean, udaletako partaideek beren esperientziak azalduko dituzte.

Txinpartak

✓ **Igandean Kilometroakeko** herri bazkaria izango da Txibiston. Bazkalostean urriaren 6an grabaturiko bideoa eskeiniko da.

✓ **Elgetako Udaletxeak** mediku kontsultategia kokatuta dagoen lokala **Osakidetzari** uztea erabaki du, mantenimendu gastuak Osakidetzaren kargu joan daitezten. Lokala beste edozein zerbitzutarako erabili ezker, Udalaren jabetza izatera pasatuko litzateke.

✓ **Soldaduskara** joateko egin zen azken zozketan sartzen ziren **78 bergarrek** zorte ezberdina izan zuten igandean. Gehienek etxetik hurbil egin ahal izango badute ere, badira Euskadi eta Penintsulatik kanpo joan behar dutenak ere soldaduska egitera.

✓ **Iganderarte Bergarako Diru Bildumazaleen Elkarrekin** antolatutako **XX. Diru Erakusketa** ikusgai duzue Kultur Etxean.

✓ **Larunbatean**, hilak 9, **Xamatzek** antolatutako **fundango eta arin-arin ikastaroari** emango zaio hasiera goizeko 11tan Aranzadi Ikastolako dantza-gelan.

✓ **Igande goizean IV. Gorlarako Motor Igoera** jokatuko da. 10 t'erdietan entrenamenduak izango dira eta ondoren txapelketako bi txandak korrituko dira 11 t'erdietan eta 12 t'erdietan.

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

JOSE LUIS eta MIKEL

Tapiz lanak eta dekorazioa

Tapiz lanak, etxe barruen dekorazioa, altzariak konpondu eta tapizak jartzeko zerbitzua eskeintzen dizu.

• **Neurriko ohe-buruak, kotxe, furgoneta, kamioi eta abarren jarlekuak tapizatzea.**

• **Moeta guztietako edredoiak.**

Urteaga 6, behea, Tfnoa; 76 50 37
BERGARA

Azkunetako San Martin

Tourseko San Martin

Tourseko San Martin astelehen honetan, hilak 11, ospatzen dela eta Imanol Sorondok, Angiozarren dagoen Azkunetako San Martin ermitaren berri dakargu.

Arexkurenagako San Martin Angiozar-ko bide bazterrean dago, San Kristobaletik gora. Bada ermita hone-tako liburu bat 1.627an hasitzen dena eta, berak esaten duenez, zahar-ragoko beste bat ere ba omen zegoen.

San Martin hau Toursekoa da, eta beste Martin Deuna batetik bereizten da, "gotzaia" izenarekin azaltzen zaiguna, Ozaetakoa adibidez. Azkunetako ermita bere izeneko auzoan dago eta galtzada zahar baten arrastoak dagozten ondoan. Hiru aldaretxo txiki dauzka: San Martin, San Roke eta San Sebastianen irudiekin.


Toursekoa izate honen bere garrantzia izan lezake Santiagora zihozten erromesen antxiñako bideak ezagutzeko.

Galiziako Santiagora zihozten erromesen bideko ermita bat ote Tourseko San Martin hau?

Erromesen deboziozko Santu batzuek hoi-etxe ziren: Santiago, Mariñe, Tourseko Martin, batez ere. Anton, Engrazi, Pelaio, ere bai. Jaunaren eta Amabirjiñaren eleizak eta ermitak, beti. Magdalenaren eta San Sebastian eta San Roke-ren ospitalak ere maiz, etab.

Bergaran, izen horietako eleiz, ermita eta irudiak denak daude. Esango genduke, erromesen izarrak baaino gehiago, izartegi oso bat ere bada-goela.

Imanol Sorondo



Azkunetako ermita bere izeneko auzunean dago Angiozarren. Hiru aldaretxo txiki dauzka: San Martin (behean ezker aldeko argazkian agertzen dena), San Sebastian (eskumaldean) eta San Roke.

LARRAÑAGA

• Errioxako ardoak

eta

• Olioak

ZUBIA

• Esnea

• Lejiak

Banatzailleak

Martokua 32, Tfnoa: 76 45 94

GOIERRI


Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

Pilar Otegi mediku donostiarrak hilabetea eman du ambulategian dagoen sexologia kontsultaren arduradun. Aipatutako zerbitzuak, herriari eskeini diezaiokeena kontatu digu Pilar Otegi



Pilar Otegi Sexologia Zerbitzuburuarekin:

"Trabak kentzen laguntzeko nago"

- Hilabetea eman duzu Bergarako ambulategian. Hasierako asmoak bete al dira?

- Hilabete honetan banaka batzuk etorri dira Zerbitzura, batez ere gazteak. Etorri direnak sarri ari dira etortzen, esan nahi dut, galdera txikiak egitera ez dela ia inor etorri, horrek pixkat harritu nau.

- Zereskeintzen du, ze informazio ematen du Sexologia Zerbitzuak?

- Sexuaren inguruko gaiei buruzko informazioa orokorrean: sexuari buruzko aholkuak, sexu terapiak, antisorgailuei buruzko informazioa, garapen sexuala, etab. Honez gain, Teknikari-entzako Informazio Zer-

bitzu modura lan egiten dugu, hau da, irakasle edo eta medikuren bati erakusteko prest gaude.

- Gizarteak sexu mailan zer ikasi badaukala uste duzu?

- Kontua ez da sexuari buruz jakitea edo ez jakitea, ondo bizitzea baino. Jakinda zein jakin gabe ere ondo bizi daiteke. Askotan gustora bizi beharrea, inportantziarik ez duten gauzei garrantzi gehiegi ematen diegu.

- Zeintzuk dira inportantziarik ez duten gauze horiek?

- Norbaiti, esaterako, musu mota bat ematea gustatzen zaio, eta horregatik arraro xamarra dela pentsa dezake. Laztanak eman eta jaso be-

harrean, beste zerbaitez kezkatzen hasten da, gaixoa izango ote den pentsatzen hasten da. Azkenean, problema izan behar ez den zerbait arazo larri bihurtzen da, jasan ezineko zama.

- Beraz horrelako problemarik duenari laguntzeko zaude zu?

- Bai, trabak kentzen laguntzeko. Nik ez ditut arazoak konpontzen, hori norberaren eginbeharra da.

- Sexologia asignatura eskoletan ematea beharrezkoa da?

- Sexu heziketa, ondo edo gaizki, beti egiten da. Nahiz eta ez egin, egiten da, ereduak daudelako. Orduan, egitekotan, ondo egiten bada hobeto,

eta eskoletan profesionalek sexologia irakasten badute are eta hobeto.

- Zertaz kezkatzen dira hona datoztenak?

- Normalean gizarte-an problematzat hartzen diren gaitatz: inpotenteak direla, sexu harremanak izaterakoan ez dutela ezer sentitzen..., horrelakoak.

- Zer da garrantzitsua goa sexua praktikatzea ala sexuari buruz jardutea?

- Inportanteena gure barruan ondo sentitzea da. Normalean, asko hitzegiten duenak, edo ez dauka beste zer eginek, edo ez du sexua praktikatzen... Sexuari buruz hitzegitea ez dago gaizki, baina dibertigarriagoa da praktikatzea.

- Ochoa sendagilearen programa nola baloratzen duzu?

- Nik aurreneko saioa bakarrik ikusi nuen eta ez zitzaidan batere gustatu, betiko eskemak jarraitzen bait zituen. «Hau da arazoa eta arazoa konpontzeko bidea hau da». Ezin daiteke horrela hitzegi. Adibide bat jartzearen, eiakulazio azkarra esistitzen bada, norbaitek eiakulazio normalari denbora bat jarri diolako da. Ez dut uste telebistan sexu heziketa egitea komenigarria denik, azken finean telebistatik esaten dena hitz santu bihurtzen delako eta hori ez da ona.

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK:

- Iturkintza
- Berogintza
- Gasa


Amillaga 1
(B pabilola)
BERGARA

Tfnoa:
76 28 04

Gizon Emakume



Irala 2 / Barrenkale 35



Trena datorrela!!

Abiadura Haundiko Trena Bergaratik pasatuko da

Asko hitzegin da azken urte hauetan Abiadura Haundiko Trenari buruz. Puntako teknologiadun trenbide sareak Europan zabaltzen badoaz, Estatu Espainolean datorren urtean jarriko da martxan Madril-Sevilla sare berria.

Eusko Jaurlaritzak ere aurreratu du dagoeneko, Abiadura Haundiko Trenaren aurreproiektua. «Y» izenaz ezagutzera eman den egitasmoaren xehetasun batzu orrialde hauetan argitzen dizkizuegu.

Euskal Autonomi Elkartean laister ibiliko den Abidura Haundiko Trena notizia iturri izan dugu egun hauetan. Izan ere Josu Bergara, Garraio Sailburuak, euskal «Y» deitutako proiektuaren berri eman zuen joan den astean. Garraio Sailburuak adierazi zuenaren

arabera, 1.993ko azaroan trenbide sare berria eraikitzeke obren adjudikazioa egingo da.

AHTren sareak Autonomi Elkarteko hiru hiriburuak lotuko dituen hiru adar izango ditu eta gure herriaren inguruan hiru bifurkazio izango dira: Elorrio, Aramaio eta

Angiozarkoak hain zuzen ere. Hiru hauek beste hiru tunelen bitartez lotuko dira: Udalaitzekoa (6,5 kilometrotako luzerakoa, Angiozar eta Elorrio bitartean) Udalakoa (3,6 kilometrotakoa, Elorrio eta Aramaio bitartean) eta Loiti-gainaren azipitik doana, (4,4 kilo-

metrotakoa, Angiozar eta Elorrio bitartean). Argi geratzen da, beraz, Euskal Autonomi Elkartean eraikiko den Abidura Haundiko Tren sarearen gune garrantzitsuena Bergara eta bere ingurua izango dela.

Zer da AHT?

Izenak berak adierazten duen moduan tren normala baino azkarra izango den honek, 250-300 kilometro orduko abiadurak hartuko ditu. Abiada hori lortu ahal izateko trenbide berezia beharko du izan: bihurgune eta aldapa gutxiko bidea eskatzen du (bihurguneetan 3.200 eta 7.000 metro arteko radio minimoak, % 15 eko maldak eta tunel luzeak); Diesel motorraz gain argi indar alternoa izan beharko du, eta trenbidearen bi aldeak hesi batez itxita egon beharko dira, segurtasun neurri bezala.

Euskal Autonomi Elkartean ibiliko diren trenak nork eraikiko dituen zehazteke badago ere, Madriletik Sevillara bitartean ibiliko dena atzerriko bi enpresek eraikiko dute: bi enpresa alemaniar eta frantziarrak hain zuzen ere. Aipatutako sarea, datorren urtean Sevillan egingo den Nazioarteko erakusketa dela eta zabalduko da, Estatuan lehen aldiz

CAMACHO

**DROGERIA
USAINDEGIA**

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

P. MANSO

Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa: 76 27 86

ikusiko den AHT izango delarik.

kostu/haundiko egitasmoa

Josu Bergara Garraio Sailburuak adierazi zuen moduan euskal «Y» deitutako trenbidearen eraikuntza 1.993an hasi eta 2.000. urtera arte ez da bukatuko. Proiektuaren aurrekontua 300.000 milioitakoa da.

Hala ere, Ineco-Sener enpresak egindako aurreproiektuan euskal trenbide sare berriaren eraikuntza 200.000 milioi kostatuko dela adierazten da. Ikerketa honen arabera, 150.000 milioi gora azpiegituratara (tunelak, zubiak, etab. eraikitzeke) bideratuko lirateke, beste 30.000 milioi inguru gainegituratara (trenbidea, instalakuntzak...), eta beste 5.000 milioi ingurugiroan sortuko liratekeen trabak gainditzeko erabiliko lirateke.

Aipatutako enpresak 1:5.000 eskalan egindako aurreproiektuan agertzen denaren arabera, trenbide berriaren erdia lurrazpitik eraikiko litzateke. Trenbideak 165 kilometrotako luzera izango luke kilometro bakoitzeko kostua 1.200 milioitakoa izango litzatekeelarik.

AHT 250 kilometro orduko abiadura baino haundiagoan ibiliko dela kontutan hartuz, Euskal Autonomi Elkarteke hiriburu batetik besterako bidaia orduerdian egin ahal izango da. 280 kilometro orduko abiaduran, Gasteizetik 32 minututan Irunen izango gara. Gasteizetik Bilborainoko bidaia, 27 minututan egingo da eta Bilbotik Irune-ra, berriz, 37 minututan.

Ekologisten kezka

AHTk ingurugiroan sor ditzaken kalteez kezkatuak talde ekologistek


beren ezadostasunak agertu dituzte egitasmo erraldoi honekin.

Ekologistentzat trenbide sare berri honen eraikuntzarako egin behar diren obrak kalte haundiagoak sortaraziko ditu Euskal Autonomi Elkartearen orografiaren berezitasunagatik. Eraikiko diren tunel eta zubiak, eta egingo diren lur-ebaki, lur-erazketa eta beste hainbat lur mugimenduk kalte haundiak sortaraziko dizkio gure ingurugiroari ekologisten eritziz.

Diotenez, obrek irauten duten bitartean egin behar diren beste lan

osagarriek ere «ez diete batera mesederik egingo inguru hauei» eta AHTk pasatzean sortaraziko duen zarata izan omen zen Japonen edo eta Londonen ez eraikitzeke arrazoi nagusia. Ekologisten eritziz fauna eta landaretzan ere hondamen haundiak sortuko dira.

Horrela, bada, AHTren proiektua alde batera utzi eta Garraio Ministeritzak orain dela urte batzuz baztertutako *Tren Garraio Plangintzara* berriz itzuli eta gaur egungo trenbide sarea hobetzea eskatzen dute ekologistek



Argazkian, gutxi gorabehera A.H.T.-ren ibilbidea Angiozar bailaran. Eskuman, Elorriora doan tunela eta ezkerrean, Aramaiora doana.

Denbora gutxiago

Taberna kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
 Kafea da gure berezitasuna
 Zubieta 26, BERGARA

A
R
R
A
N
O

Taberna
 Kruz Gallastegi BERGARA

BERGARA
Karrozeria
 Txapa - Pintura
 Zubieta 46
 BERGARA
 Tfnoa: 76 12 31



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS
oto sistema

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkia momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.


Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

**Sexologia Zerbitzua
beharrezkoa al da?**



Jabier Gabilondo
17 urte, ikaslea

Batzuentzako ondo dator, jendea ez dagoelako ondo informatuta.



Juan Bautista Luarizaristi
67 urte, jubilatua

Bai, informazio hori beharrezkoa zaigulako. Nik neuk, jubilatua naizenez, ez daukat problemarik.



Dorleta Mauleon
36 urte, etxeoandrea

Bai eta gehiago egon beharko lirateke. Gazteentzako eta helduentzako, denentzako.



Maite Larrañaga
19 urte, ikaslea

Bai, oso ondo dago batez ere gazteei laguntzeko, helduak beharbada informatuta egongo dira baina gazte asko ez.

BERGARA BOLTSAK

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarikoko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1, Tfnoa: 76 57 69 Faxes: (943) 76 55 66 BERGARA

**ETXEPARE - BILINTX
LIBURUBENDA**

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



**Katalanak
eredu**

Hamabi urte pasa nabil igeri egiten, eta gauzatxo batzu aldatu ditugu igeri munduan euskarari dago-kionez. Urte batzuk direla, igeri txapelketetan, mikrofonotik erderaz hitzegiten zuten.

Bergarako Igeri Elkartekoez euskaraz hitzegitea erabaki genuen, eta klasifikazioak eta abar euskaraz ematen hasi ginen, nahiz eta zenbait tipo "yo no entiendo" esanez guregana etorri. Horrela, poliki poliki Gipuzkoan eredu hori jarraitu genuen, gero Euskadi ososan sartzeko.

Beste alde batetik, irteerak lehen "preparados" esanez izaten ziren, eta orain berriz, (epaile batzuk oraindik ez), "gertu" esaten dute.

Hala ere, kataluinarrengandik gauza asko ikasi beharko genuke. Igeriketari dagokionez, Espainiako txapelketak Kataluinan direnean (askotan izaten dira), kartel, kamiseta eta abarretan, dena katalanez agertzen da. Euskadin, Bilbon egin zenean, erderaz jartzen zuen "Gran Premio de España de Natación".

Igeri munduko detailetxo hauek aipagarriak dira, baina askoz garrantzitsuagoa da denok (ni ere bai, noski) euskaraz egiten saiatzea.

Iñigo Gallastegi



**Euskaldunon
tropela**

Gure hizkuntzaren problematikak beti preokupatu nau; euskara, geure hizkuntza, ezin da galtzen utzi. Azken urte hauetan ikastolak, gobernuak eta udaletxeek egin duten lanari esker aldaketa nabaria ageri da, euskaraz hitz egiten duten pertsonen "tropela" asko haunditu da.

Nik, pertsonalki, nahiago dut euskaraz mintzatzea, eta beti hala ez bada ere, garrantzitsuena euskaraz pentsatzen dudala da.

Aurten ziklo-krossean dagoen txapelketarik garrantzitsuenean parte hartuko dut, "Superprestijioan", eta hori prestatu nahian 6 aste egin ditut Belgikan. Inguru haietan 3 hizkuntza mintzatzen dira: frantsesa, flamenkoa eta inglesa; ni, neure ingles apurrarekin eskuen bidez mintzatzen nintzen. Hilabete t'erdi egin ondoren, ilusio handia eman zidan Donibane inguruan irratia jarri eta euskaraz mintzatzen entzun nuenean.


Pertsonalki, sekulako ilusioa egiten dit karrerei buruzko berriak euskaraz komentatzen direnean. "Euskara Gazteena" kanpaina dela eta, bergarar guztiak, eta bereziki gazteak euskaraz egitera animatu nahi nituzke, ba zeuek izango zarete biharko protagonistak. Eta batez ere, geure arbasoak mintzatzen ziren hizkuntza aurrera atera behar dugulako.

Iñigo Igartua

ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

HALTZARI

**FAGOR altzarien
banatzailea.**

Sukalderako altzariak

Bolu 24 Tfnoa: 76 30 57 BERGARA

**Kirol Moda
SURF**

AISOR

Rip Curl , Town country, Quick Silver, O'Neill

Bidekurutzeta7 Tfnoa: 76 04 10 BERGARA

Zeuk galde



40. Zer pisu da normalena neskatila jaioberri batetan? Eta mutil jaioberri batetan?

Bai kasu batean eta bai bestean gehiengo 3 kilo eta 3 kilo t'erdi bitartean ibiltzen da.

Asko dira 3 kilo t'erdi eta 4 bitartean izaten diren mutikoak, 3 kiloz azpikoak baino gehiago. Eta nesketan ere normala da 3 kilo t'erdi eta 4 bitartean egotea nahiz eta 3 kiloz azpikoak gehiago diren.

Anekdota moduan esan dezagun 1989ko Euskal Estatistika Erakundearen datuen arabera Euskadin 24 ume jaio zirela 5 kilo baino gehiago-koak: 16 mutil eta 8 neska.

□ Kilometro txiki

Joan den ostiralean *Pertxa Elkarteak Kilometro Txiki eguna* ospatu zuen. Goizeko bederatzietan, *Jesus Mari Eguren* Pertxako presidentek, umeen kanta artean, zinta moztu eta han joan ziren 200 bat lagun urriaren 6an egin ahal izan ez zuten zirkuituari buelta ematera. Surran salda, txorixua eta ardoa hartu eta handik behera..., guztiak Pertxa Elkartearen zuten bazkarira. Dirudienez, ez omen zitzaizen gogorra gertatu zirkuitua, bazkalostean dantzan aritu zirela ere jakin izan dugu ta.



□ Aurkikuntza mingarria

Argazkian duzuen *koartza* akatuta aurkitu zuen ekolojista bergarar batek joan den asteazkenean Oñati inguruan. Beste zenbait ekolojistarekin batera Ertzantzarengana jo eta gertaera salatu zuten, koartzak perdigoizuloak baitzituen lepoaren inguruan. Oraindik horren erantzunkizunik argitu ez den arren, galera hor dago.

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

TOKI-ONA

Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak -
Txitxizotzak-Kazolatxoak-
Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53



Era guztietako
kristaleria: Ispiluak,
bidrierak...


UR Kristaldegia

Urteaga 8, Tfnoa: 76 54 68 BERGARA



□ **Hirukote galanta**

Xabi Labaien teklatuetan, Nartxi Azkargorta argi teknikari eta Koldo Lizarralde antzuolarra soinuaz arduratuz, Bizkaiko Muskiz herrian izan ditugu *Taxi Libre* taldeak eskeinitako kontzertuan. Xabik *Lisker* bere taldeko eta *Taxi Libre*ko kantaria denari lagundu nahi izan zion bere esperientzia berri honetan, eta Nartxiren *argitasuna* eta Koldoren *zarata-kontrola* ere ezinbestekoak gertatu ziren guztia nahi bezala iritezko.




Zertan dihardute ba?

DIEGO DULANTO



Joan den astebukaeran Gorbean izandako *Euskal Herriko Espeleologi Taldeen Lanegunetan*, 37 urteko mediku eta espeleologo bergarar honek ondo ezagutzen duen *espeleologuntzari* buruzko hitzaldia eman zuen.

"KAXETA"



Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan parte hartu duen 38 urteko bertsolari antzuolar honek ez du suerte gehiegirik izan, igandean Hondarribin jokaturako kanporaketan eliminatuta geratu baitzen txapelketatik.

Enebada
 Sukalde, mahai eta etxerako artikuluak.
 Oparigaiak
 Mahasterreka 19, Tfnoa: 76 46 53


ARLA, E.L.
 montaia elektrikoak
 • Argindarra
 • Elektrotresnak
 Ondarre Plaza 2, Tfnoa: 76 63 36
 ANTZUOLA

IGARO
 ✓ Kosmetika eta oparigaiak
 ✓ Eder gela
 ✓ Bio Solariunma
 Barrenkale 35, Tfnoa: 76 17 27

Hau dok barreguria !! Esaera zaharrak

Lehen etzeuan oin-
go konturik. Iluntzian
danak etxera, batez be
neskak.

"Euzkixa ertzian,
esnia pertzian
eta neskatxak etxian".



* * *

"Ubera trebera,
Elgeta maleta,
Angiozar trapuzar,
Bergaran tronpia eta
Antzuelan koipia".

* * *



"Zaharrei geldi ego-
teko esatia eta umiei
geldi egoteko esatia
berdiña ei da"

* * *

Egia hutsa eta ogi
hutsa, bixak gauza si-
kuak"

* * *

J. M. Elexpuru

Antzinako kontuak

Oxirondo eta Uzarraga

Bergara hiri bihurtu
zen 1.268an baina Oxi-
rondo Santa Marina al-
dea, Zubieta, Madura eta
baserriak Elgetakoak zi-
ren orduan (Elgeta
1.335ean egin zuten hi-
ri).

Batetik oso urrin ze-
goelako eta bestetik zerga
kontuan Bergarak
bentaja haundiak zitue-
lako, badirudi Oxiron-
dokoak harreman txar-
retan zeudela Elgetare-
kin.

1.348an bere etxe, ba-
serri eta lurrekin pasatu
ziren Oxirondotarrak
Bergarara. Zergak ordai-
ndu bai, baina Santa
Marinan hildakoak lur-
peratzeko eta harreman-
ak eta primiziak ordai-
ntzeko eskubidea
gorde zuten. "Los Veci-
nos de Elgueta, al separar-
se Oxirondo de ellos cau-
saron grandes cuestiones
con Vergara que dieron por
resultado muertes, talas,
robos y demas quemadas..."
dio agiri batek.

Uzarragako "uniber-
tsitateak" ere bide berdi-
na hartu zuen eta 1.391-
ean Bergarara batu zen
bere baserriekin. Baina
Oxirondo eta Uzarraga
ez zituzten Bergaran
haintzakotzat hartzen ez
udala aukeratzeko eta ez
ezertarako eta bereizteko
gogo nagusitu zen leku
bietan.

1.525ean eraiki zen
Piedadeko Amabirjina-
ren eliza Antzuolan eta
bere inguruan hirigunea
zabalduz joan zen.
1.629an lortu Antzuolak
bere independentzia bu-
rruka askoren ondoren
eta 5.000 dukat ordain-
duta.

Oxirondok ere sepa-
ratu nahi izan zuen eta
1.630ean. 4.000 dukat es-
kaini zion erregeari, gero
5.000, baina Bergarak
6.000 ordainduz lortu
zuen gauzak lehen beza-
la uztea.

J.M. Elexpuru

ONENA TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

JUBILATUEN TABERNA

• Bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

PEÑALBA

- Loteria
- Oparigaiak

Irala 1, Tfnoa: 76 10 49
BERGARA

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06

Bidekurutzeta 6, behea
Tfnoa: 76 57 68
BERGARA

droa
boutique



Bide onetik

Badirudi *Bergarako* futbol taldea hasi dela pixkanaka kategoriari neurria hartzen eta igandean garaipen berri bat lortu zuen Eibarko *Urki* taldearen aurka Agorrosinen. Bergarak e- rrez irabazi zien eibartarrei 4 eta 0eko emaitzarekin. Lehen zatian bergarrek lortutako 3 golekin partidua erabakirik utzi zuten; lehena *Pelayok* lortu zuen penaltijaurtiketa baten bitartez,

Urkiko jokalaria batek baloia eskuaz jo eta bere taldea jokalaria bat gutxiagorekin utzi ondoren. *Iban* eta *Guisado* bi aldiz izan ziren beste gol egileak. Bergara gehiegi lasaiatu zen bigarren zatian eta jokoa ez zen igandearratsaldean Agorrosinen bildutako jendearen gustokoa gertatu, partidua amaieran txistu batzuk ere entzun zirelarik.

Txinpartak

✓ *Jose Julio Barrenetxea* eta *Pedro Marcos Fuerte*, 26 eta 25 urteko eibartarrak ditugu *Udal Kirol Zerbitzuak* kontratatu berri dituen kirol monitore berriak. Biak IVEFen lizentziatuak dira.

✓ *Bergarako emakumezkoen* bigarren mailako *saskibaloitaldeak* Bilbon *Begoñakoren* aurka jokaturako partiduan galdu egin zuen 89 eta 63ko emaitzarekin. Ea igandean *Jarrillerosen* aurka garaipenaren bidea berreskuratzen duen (Labe-garaieta, 12.00).

✓ *Bergara Igeri Elkarte*ko hamar igerilarik parte hartuko dute larunbatean, hilak 9, Arrasaten jokaturako den *Gipuzkoako Fondo Igeriketa Txapelketan*. Goizez eta arratsaldean, gipuzkoar igerilari hoberenek 800 eta 1500 metrotako probak izango dituzte Arrasateko Polikiroi-idegian.

✓ *Iñigo Igartuak* momentu honetan ziklo-krossean etsairik ez daukala argi laga zuen igandean *Lemoan*, eta berriz ere lehenengoa izan genuen helmugan.

✓ *Futboleko sub-23 taldeak* hasiera bikaina izan zuen Gipuzkoako Txapelketan ostiralean, 3 eta 0 irabazi baitzion *Segurako* taldeari Agorrosinen. *Zangitu* eta *Ibanen* bi golak errenta nahikoa izan daitezke itzulerako partidurako.

Agur denboraldiari

Txirrindulari, guraso eta direktiboak tartean, 85 lagun inguru bildu ziren larunbatean Alzasun, *Lokatza Txirrindulari Elkarteak* denboraldi amaiera ospatzeko eskeinitako afarian. Bertan, *Gorka Marzan* bigarren urteko Gipuzkoako kadete txapelkunak Elkartearen aitormena jaso zuen. Era berean, taldekako Gipuzkoako kadete txapelketa irabazi zuten txirrindularientzat ere Elkarteak orduan Zumaiian eman ez zizkieten txapelak prestatu zituen eta denboraldian zehar gainontzeko txirrindulariek erakutsitako maila bikaina ere azpimarratu zen.



IZARRA

Ileapaindegia

Mistoa



San Pedro 23 Tfnoa: 762972

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

ONGI ETORRI

Jatetxea

Tfnoa: 76 63 49,
ANTZUOLA



Aberri futbol taldea

Sekulako zaletasuna sortu zuen futbolak Bergaran 1.920 inguru horretan. Aurretik izan zen *Shooting Club* izeneko ekipo bat, bapatean desagertua. Haren ordeztu bi sortu ziren: *Askatasuna* eta *Aberri*.

Hemen dakarguna *Aberri* taldearen hasiera-hasierako ekipoa dugu, Zubieta aldeko eta inguruetakoko jokalariz osatua.

Primo de Riveraren garaia zenez, itxuraz korresponsal batek denuntzia jarrita, *Aberri* izena kentzera behartu zituzten eta orduan *Alkartasuna* izena jarri zieten. Gauza bera gertatu zitzaion *Alkartasunari* ere, lehengo izenaren ordeztu *Aurrera* izena jarri behar izan zioten.

Hona, bada, orduko Bergarako futbolzaleen idoloak zeintzu ziren; ezkerretik eskumara:

Zutik: Isidro Alberdi, Asentzio Azpiazu, Pedro Etxeberria, Rufino Garitano eta Daniel Jauregi eta Luis Larrañaga "Bitxurtu".

Makurtuta: Luis Intxausti, Bittor Ugarte, Jose Mari Gallastegi, Felix Unamuno (gero Athletic-en ibilia) eta Melchor Unzurrunzaga.

Estepan Plazaola.

Argazkia: Isidro Alberdi.

SURPE
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



alga
Usaindegia.
Eder-gela. Oparigaiak.

IBARGARAI 10 Tfnoa: 76 00 85

Carmen Gárate

Plastikoak eta narruzko gauzak

Bidekurutzeta Tfnoa: 76 13 23
BERGARA



ETXEBIZITZA

Pisua salgal Koldo E-leizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurrera: 764252.

Pisua salgal Koldo E-leizalden. Tfnoa: 765823.

Pisu txiki edo buhardila bat hartuko nuke alokairuan. 763270.

Baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.

Pisu edo buhardila hartuko genuke alokairuan. 764735.

Pisua salgal: bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. Tfnoa: 7649 71.

Gaztelania hobetu nahi dut. Pisu bat hartuko nuke errentan beste ikasle batzuekin, edo familiaren batean biziko nintzateke. Deitu: 763001 telefonora (John).

Pisua salgal, garaje eta guzti. Tfnoa: 763911.

LANA

Mutil batek furgoneta batekin **errekauak** egiten lan egingo luke. Deitu: 742063.

Arratsaldez lana egingo nuke **etxeko lanak** egiten edo **umeak zaintzen**. Deitu: 765482.

Produzio saileko **Injenero-tekniko** batek lan egingo luke. Tfnoa: 761913

Langile bat behar da. Tfnoa: 761593, lan ordutan.

SALDU-EROSI

Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 86207 telefonora.

Peugeot 505 SRD, 1.981ekoa, ITv 1.992ko amaiera arte, 35.000 Km eta errektifikatutako motorra. 375.000 pzta. Deitu: 764129 tfnora.

Karrerako bizikleta bat mendiko bizikleta batengatik trukatu nuke. Deitu: 763269.

Skate-ko patinete berria salgai. Tabla *Hard-Times*, ejeak *Gold-Wine* eta erruberak *Mini-Rat*. Deitu: 762682.

Logela bat eta altzariak salgai oso merke. Deitu: 761929.

Erabiltako altzariak erosiko nituzke (mahaiak, aulkiak, armairuak, etab). Deitu: 768157, gauez.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitora, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tfnoa: 762512.

Karabana berri-berria salgai 5 pertsonarentzako abanxe eta guzti. Deitu: 761388.

3 pertsonarentzako **Iglu kanpling-denda** berria salgai. Deitu: 763495.

Siberian-husky's arrazako txakurkumeak salgai. Deitu: 761479.

Hildakoak

Ageda Azkargorta Gisasola

78 urte, urriaren 31ean

Sebastian Muruamendiaraz Alberdi

72 urte, azaroaren 2an

Milagros Zabala Epelde

45 urte, azaroaren 3an

Paula Urriategi Larrea

76 urte, azaroaren 5ean

Tomas Moñux Angulo

80 urte, azaroaren 7an

Jaiotakoak

Mireia Argarate Oregi

urriaren 30ean

Aitzol Azula Losada

urriaren 30an

Josefina Marmol Porta

azaroaren 2an

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

Euskalduna
Taberna

OSINTXU



**FIORINO
ACTIVA
DIESEL FURGOIA**

1.697 cm. kubiko
60 zaldi
2,7 m. kubiko
470 karga erabilgarria

**1.120.000 pzta.
Matrikulatuta**

ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi **FIAT**
ZERBITZU OFIZIALA



ASEGURU ARTEKARIAK

- | | |
|------------------------------|-------------------------|
| ✓ Etxeko arrisku askotarakoa | ✓ Pentsioetarako planak |
| ✓ Garraioak | ✓ Istripuak |
| ✓ Autoak | ✓ Subsidioa |
| ✓ Komunitateak | ✓ Komertzioak |
| ✓ Bulegoak | ✓ e.a. |

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA